

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

11.100 langabe gutxiago izan dira azken urtean Nafarroan eta Estatuko langabezia-tasa txikienari eutsi dio, % 12,55

Bigarren hiruhilekoaren amaieran 38.400 langabe zeuden, BAIk gaur argitaratutako datuen arabera

Jueves, 23 de julio de 2015

Duela urtebete baino 11.100 langabe gutxiago izan dira Nafarroan aurtengo bigarren hiruhilekoaren amaieran, hau da, % 22,42 jaitsi da; orain, 38.400 pertsona daude lanik gabe, Biztanle Aktiboaren Inkestak (BAI) [gaur, osteguna, argitaratu](#)tako datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuz, 9.500 langabe gutxiago izan da, eta langabezia-tasa % 12,55 da, Estatuko txikiena. Portzentaje hori 2011ko bigarren hiruhilekoko baino txikiagoa da, bigarren atzeraldi ekonomikoaren aurretik; orduan langabezia-tasa % 12,87 izan zen (41.330 pertsona lanik gabe).

Nafarroako Gobernuak langabezia-kopuru hori jaitsi izana enplegua sortzeari egozten dio; izan ere, okupatu-kopuruak ere gora egin du 2015 eko bigarren hiruhileko honetan (9.100 pertsona gehiago), eta orain 267.300 pertsona daude okupatuta.

Espainia guztian, langabeziak behera egin du; orain 5,1 milioi langabe daude, eta tasa % 22,37 da. Aipatu denez, Nafarroa langabezia-tasa txikiena duen autonomia erkidegoa da, % 12,55 eta, haren atzetik, Euskal Autonomia Erkidegoa dago, % 15,98.